

AITA SAN FRANZISKO ASISKOAREN

IRUGARREN ORDEN BENERAGARRIKO

ERRECLÁ

AITA SANTU LEON AMAIRUGARRENAK

DENBORA AUETAKO KRISTAUENTZAT

KONBENI DAN ERARA EGOKITU

DUEN BEZALA

A. Fr. IGNAZIO MARIA, KAPUCHINO,

ONDARRABIAKOAK

EUSKARAZ IZKRIBATUA;

ETA

GAÑERA ONGI DARITZAIZKAN

BESTE IRAKURGAI BATZUEK GEITURIK,

BEAR DIRAN BAIMENAKIN

EMANA.



DONOSTIAN

Semana Católica-ko moldiztegiari aterea,
1898garren urtean.

V
99

N-277481

AV.

49699

AITA SAN FRANZISKO ASISKOAREN

IRUGARREN ORDEN BENERAGARRIKO

ERRECLÀ

AITA SANTU LEON AMAIRUGARRENAK

DENBORA AUETAKO KRISTAUENTZAT

KONBENI DAN ERARA EGOKITU

DUEN BEZALA

A. Fr. IGNAZIO MARIA, KAPUCHINO,

ONDARRABIKOAK

EUSKARAZ IZKRIBATUA;

ETA

GAÑERA ONGI DARITZAIZKAN

BESTE IRAKURGAI BATZUEK GEITURIK,

BEAR DIRAN BAIMENAKIN

EMANA.



DONOSTIAN

Semana Catòlica-ko moldiztegian aterea,
1898garren urtean.

Jabearena da.



IRAKURTZEKO MODU BERRI ERRAZA

ca	<i>bezala</i>		ka
que	<i>bezala</i>		ke
qui	<i>bezala</i>		ki
co	<i>bezala</i>		ko
cu	<i>bezala</i>		ku
ce	<i>bezala</i>		ze
ci	<i>bezala</i>		zi
gue	<i>bezala</i>		ge
gui	<i>bezala</i>		gi





¿Nork ez dio konfiatu ta esango,
Onelako Ama on bati?
¿Urrikal zaite arren nizaz, ta,
Guarda nazazu beti beti!

Agur, María, graziz betea, Jauna da
zurekiñ, bedeikatua zera Zu andre gu-
zien artean, eta bedeikatua da zure sa-
beleko frutu Jesús.

Santa María, Jaungoikoaren Ama, erre-
gutu zazu gu pekatariakgatik: oraiñ eta
gure eriotzako orduan. Amen Jesús.



JAUNGOIKOAREN BIDEZ

AITA CHIT SANTUA DAN

LEON AMAIRUGARRENAK

EGOKITUTAKO

SAN FRANZISKOREN IRUGARREN ORDENAKO

ERREGLA

LEON, OBISPO,

Jaungoikoaren serbitzarien

serbitzariak

betiko oroitzarako.

Gizonaki uztarri berá eta karga ariña gañean paraturik denak bizitzeko eta salbatzeko modua erraztu zuen Jaungoikoaren Seme urrikaltsuak, laja zuen berak jarritako Eliza, beraren eskubide eta errukimentuaren jabe bezala; irabazi zituen merezimentu bukaergabe aek aurrera ere beti karidade edo ongite bera-

rekiñ zabaldu zitezen ondorengo gizaldi denetan. Onegatik Jesukristok bere bizitzan egiñ eta agindu zuen guzian, mira garrizko jakintza ezti eta ordu arte oartu ez zan moduko ongina ai aundiak distiatzen zuten bezala; gisa berean, kristaue n Erlijioko Orden denetan ageri dira argiro, biotzberatasun eta on eginaiaren seña le estimagarriak: alako moduan; non, onetan ere ezagutzen dan aisa; gu-re Ama Eliza Santak duen, *karidadea* dan Jaungoikoaren irudi aundia. Ama errukitsu onen berezko egitekoa da, beti, duen jakintza aundiarekiñ lege santuak, al ditezkenearaño, denbora eta oituraki dagokien erara moldatzea, eta konbeni dan baño geiago iñori deus ez agintzea ta ez eskatzea. Eta onela jakintasunak eta karidadeak elkarrekiñ obratzetik gertatzen da, Elizak, bere dotrina beti osoa daukalarik, agindua duen urá egiteko edo gordetzeko modua, obeto daritzan beste gisa batean erakutsi edo erakastea.

Guk, oraindako gure deseo eta asmoa Aita Santuari dagozkion eginkizunetan esan dedan moduan jardutera zuzendu ditugun bezala; pensatzen degu aurrera ere obligatuak gaudela; jendearen biziberrari eta obra onetarako aurkezten zaiozkaten eragozketak begiraturik, dena ondo kontsideratu ta, ezinkizunak kenduaz erraztera, probechurik aundieneko birtutelanak egitetik inor atzeratu ez dedin. Eta onegatik, jarri gera orain; San Franziskok paratutako Irugarren Ordenari begira: lenbiziko beroni dagozkion eran bizitzeko zer eskatzen duen jakin ta, gainera denboren joanetorriak edo jendearen ezinkizunak ongi esaminatu ondoan, ikusi dezagun konbeni ote dan, Orden onetako Erregla piska bat erraztuaz arintzea.

Deseo aundiarekin enkargatu genioten kristau fielak, joan dan urteko (1882) Agorraren amazazpian mundu guzira eman genuen *Auspicato* deritzan Enziklika edo letraldian, San Franzisko Patri-

arkaren Irugarren Orden Beneragarri au al diteken leku denetan jarri dezatela. Gure orduko borondatea eta asmoaziran, dei maitatsu aren bitartez denbora egoki onetan al diteken jende denari kristautasunezko izate santua estimatuerazitzea. Zeren, oraiñ sufritzen diran gaitz eta aurrera sortuko dirala beldurtzen geran perillak etortzeko asierarik lenena izandu da, kristautasunezko birtuteak guchi estimatzea: bada gizonak eziñ erremediatu ditzateke gaitz oek, ezkutuan eta agerian ziñez biurtzen ez bada Jesukristogana, *zeiñak beti salbatu ditzaken beraren bitartez Jaungoikoaganatzen diranak*. Jesukristok agindutakoak egi-tean dago San Franziskoren Ordenak goardatze guzia: zeren auek paratu zituen Santu aundi aren asmoa izandu zan, bere iru Ordenetan sartzen diran personak bakoitza bere lekuan kristautasunari dagozkion birtuteak geituaz bizitzea. San Franziskoren lenengo bi Ordenak, nola diran birtuterik aundienetako esko

lan aziak; aek saiatzen dira izan ditekenez bizitzik ónena eta santuena egiten: baña, au guchik dezateke: da esatea; bakarrik, Ebanjelioaren konseju santuak ere gordetzeko deseo aundi eta asmo sendozko doaia Jaungoikoagandik artu dutenak. Baña Irugarren Orden au jarri zan, kristau denentzat: eta, nola berez, ala geroztik igaro diran gizaldi denetako probakiñ ezaguerazten du argiro, daukan podere edo almen aundiarekiñ zeñ asko laguntzen duen, Erlijio santuko oitura on eta bidezkoak beren indarrean goardatzeko.

Konseju onak sortzen dituen eta aek erakasten dutena egiten laguntzen digun Jaungoikoari eman bear diozkagu eskerak, gure enkargu maitatsuari kristauak beren belarriak ichi ez diozkatelako. Alde askotatik entzuten degu, San Franziskoganako naiera irazekitzen ari dala, eta beragatik, edozeñ lekuetan gerroago eta geiagok deseatzten dutela Irugarren Ordenan sartzea.

Bada, onetarako gogorik ez dutenak alaitzeko eta aurkezten diranak beren asmoan sendotu ditezen, erabaki degu, esaminatu eta ikustea, zer dan, animaki salbazioko bide onetan segitzea eragozten diena, eta onela atzerazten dituen. Eta lenbiziko oartu deguna da, Gure aurreko Aita Santu Nikolas laugarrenak 1289garren urteko Abuztuaren emezortzian *Supra montem* deritzan letraldiarekiñ ontzat eman eta sendotu zuen Irugarren Ordenako Erregla ez dagola ongi, denbora auetako jendearentzat, agintzen duena konbeni dan erraztasunarekiñ egiteko. Onetatik zetorren; artu zuten obligazioa betetzeko neke eta ezinkisun aundiarekiñ arkitzen ziralako, karga urá arintzeko premia eta deseoak erakusten zuten zenbait, arrazoiezko eta bidezko eskaera zala ikusirik Erreglak agintzen dituen egiteko batzuetatik libre laja bearra: zeñatatik sortu dan, aisa ezagutu ditekenez moduko naspilla eta denak erabatean iñola eziñ gobernatua.

Beste motibo bat ere bazan gure arre-
ta eskatzen zuena. Au da. Gure aurreko
Aita Santuak beren onginei aundiarekiñ,
Irugarren Orden au, jarri zanetik chit
asko estimatzen zutelako; onetan sartu
diranaki eman diozkatee induljenzi edo
barkazio asko eta guziz aundiak: ainbes-
teraño; non, urteen buruan nasirik, zer
denbora eta moduetan irabazi zitezken
zierto ez zekitelako, bakoitzak, alegia
besteak baño obeto jakiñ, askotan elka-
rrekiñ erriertan bezala aritzen ziran.
Egia da, lenago ere kontua iduki izan
dutela Aita Santuak onelako dudak kent-
zeko; batezere Benedikto amalaugarre-
nak, 1751garren urteko Marchoaren
amabostean eman zuen, *Ad Romanum
Pontificem* deritzan letraldiarekiñ; baña
askotan gertatzen dan bezala, geroztik
ere sortu dira beste berriak. Beragatik,
ikusirik Guk, duda eta naspill oek de-
nentzat kaltea besterik ez dakartela,
izendatu genituen Erromako Eliza Santa-
ko Kardenal batzuek, zeñiak diran In-

duljenzi eta Erreliki sagraduen kontua duen Batzarre Sagradukoak, ardura aundiarekiñ ikusi zezaten Irugarren Orden onetako Erregla, eta gisa berean esaminatu zitzaten beraren induljenzi edo barkazioak eta pribilejioak: onela, len nola zegon ongi ezagutu eta gañera oraingo denbora edo bizitzeko moduari begiraturik; dena, dagokion eran kon sideratu ondoan, beren iritzian aurrerako, len dagonean zer laja, eta zer mudatu bear dan Guri esateko. Bukaturik enkar gu urá agindu zitzaien bezala, esan zuten; aen ustez konbeni zala, lengo Erregla kapitulu batzuetan zerbait mudatuaz erraztu ta oraingo bizitzeko moduari dagokion eran aisa goardatu dit ekela jartzea. Gañera, induljenziaki dagokionaz esan zuten; aen iritzian, aue tako dudak eta beste edozer bear bezala ez egiteko perill denak kentzeko ondoe na eta probechurik geienekoa egingo genukela, Benedikto amalaugarrenaren gisara, oraindañoko barkazio denak oso

ro kendu eta berriro besteak ematea.

Bada, au dena ontzat arturik, gogoz eta biotzez, Jaungoikoaren gloririk aundienerako, eta jendea errukitasun eta beste birtuteetarako deseoarekiñ berotuaz geiago irazeki dediñ; Guk, gure eskubide apostolarrarekiñ jartzen degu berriro, San Franziskok paratutako Iru-garren Orden *sekularra* deritzaneko Erregla: eta agintzen degu, Letra auekiñ, laster aurreraseago irakurtzeko dagon bezala. Eta ez dezala iñork pensatu, onegatik, izan diteken guchienik deus kentzen zaiola Orden oni; zeren gelditzen da len bezalase oso osoa bere izate guzian: eta nai degu aurrera ere onela segitzea. Eta gañera; gaurdaño Aita Santuak edozer denbora eta moduetan eta izenekiñ emandako pribilejio eta induljenzi denak betiko kenduak gelditzen diralarik, nai degu; emendik aurrera Orden onetakoak probechatu eta gozatu ditezela, aurrean berriro jarriak dauden induljenzi eta pribilejio oezaz.

AITA SAN FRANZISKOREN

JRUGARREN ORDENAKO ERREGLA.

LENBIZIKO KAPITULU EDO IRAKURGAIA.

Ordenan artzearen, nobiziaduaaren eta profesioaren gañean.

Orden onetan artzeko izan bear du amalau urte betetakoa, oitura onak di-tuena, paketsua, eta guziz gañ gure Erlijio katólikoa gordetzen kontuzkoa eta Erromako Elizari eta Aita Santuari obeditzen leiala dalako probak emana.

Ez da artuko emakume ezkonduarik se-narra jakiñaren gañean jarri ta onek baimena eman gabe; beraren konfesore-ari beste moduren batean giatu bear dala ez badaritzaió beintzat.

Orden onetan sartutakoak ibilli bear dituzte berekiñ eskapulario chikia eta kordoia oitura dan bezala paratuak; bes-

tela ez dira probechatu ta gozatuko oek -
gatik emanak dauden eskubide eta pribi-
lejioaz.

Orden onetan sartzen diran gizaseme
eta emakume denak lenbiziko urtea ira-
goko dute nobiziaduan: eta andik aurre-
ra, bear bezala profesatuaz aginduko du
bakoitzak, Jaungoikoaren legea goarda-
turik obedituko diola Ama Eliza Santari
guzian; eta emandako itza egiztatu gabe
utzitzen badu zerbaitan, egingo duela
bear dan penitenzia ere.

BIGARREN IRAKURGAIA

Bizitzeko moduaren gañean.

Irugarren Ordenan sartutakoak, utzi-
rik edergai eta gusto geiegiko janzitze eta
ibillerak, bizi bitez modestiarekin bakoit-
za bere bizimodu edo izanari dagokion
eran.

Izan bezate ardura aundia, onestasus-

na itsusten duen dantza edo komedietara gabe beren buruaki kontu egiteko: baita, jaten geiegira ez iragotzeko ere.

Jaten eta edaten izan bitez modestitsuak; eta konsideraturik Jaungoikoak bere leialtasunez ematen duena dala bizikari urá, artzerako esertzean errezatu bezate beti zerbait debozioz; eta gisa berean, alchatzerakoan ere bai eskerrak emanaz.

Barautuko dute Maria Birjiñaren Sortze guziz garbiko besperan eta Aita San Franziskorenean: eta, len Orden onetakoak bezala ostiralean barautzen badute edo asteazkenak aragirik jan gabe iragotzen badituzte, alabantza mereziko dute.

Konfesatu eta komulgatu bitez illero.

Orden onetako Apaizak, egunero Elizerrezoa egiten dutelako, ez daude obligatuak Erreglak agintzen duena errezatzera. Beste gañerakoak, Ama Birjiñaren Elizerrezo laburra egiten ez badute, esan bear dituzte egunero amabi Aita

gure, Agur Mari eta Gloria Patri; gaisotasunak eragozten ez badiote beintzat errezatzea.

Testamentua egin bearrean daudenak, nori zenbat utzi ondoena daritzaien moduan erabaki ta egin bezate mugonean.

Saiatu bear dute, oitura urrikaltsuarekiñ obra onak egiñik ejenplo edo erakasde bidezkoa emanaz beren familia beste-enak baño ere birtuteetan geiago aurreratzen. Eta birtuteari kalte egin dizaioken liburu edo paperik ez bezate laja beren echean sartzen; eta kontu aundia izan bezate beren mendeko iñori irakurtzen ez lajatzeko ere.

Iduki bezate kontuz elkarganako karihadea eta onginaia, nola beren artean ala beste personakiñ. Eta saia bitez aldezateken guzian, bata bestearekiñ aserre daudenak adiskidetzen.

Ez bezate juramenturik egiñ iñoiz, egiaren gañean ainguchi premirik gabe. Jolasean izan bitez kontuzkoak; itz lizun, ergelkeri, edo chancha itsusiakiñ Jaun-

goikoa ofenditu eta beren errespetoa galdu ez dezaten. Gauero egin bezate, igaro dan eguneko esamina, orrelako zerbait kulpa edo aundiagorik izan ote duten jakiteko: eta topatzen badute damutu bitez esan edo egindako gaizkiaz.

Meza entzun bezate egun denetan, beren bizimoduan kalterik gabe dezatekenak bedere. Eta bildu bitez beren Buruzaiak seinalatzen dien egunean illeroko batzarrera.

Bakoitzak bere al dezaken eran eman beza zerbait limosna, Ordenako seniderik beartsuenak gaiso jartzen diranean sokorritzeko, edo Elizako eginkizunetan gastatzen dana pagatzeko.

Buruzai edo Zuzendariak beurek joango dira Ordenako senide gaiso jartzen diranak ikustera, edo bialduko dute norbait karidadezko eginbearrak beteko dituen. Eta gaitz arekiñ iltzeko irriskuan bádago, konseju onak emanaz enkargatu bear du, denbora probechatuaz Sakramentuak ongi arturik Jaungoikoaren

graziarekiñ berriro konsolatu eta indartu dezala bere anima.

Orden onetako anaia edo arreba iltzen danean, erriko eta kanpotik etorritako beste senidelagunak joango dira progura, eta aren animaren sufrajiotzat erreztuko dute bost misterioko Arrosarioa. Eta gañera, Apaizak Mezan, eta beste al dezatekenak ere Komunio Sagradua arturik, erregutu bezate debozioz illaren betiko deskansurako.

IRUGARREN IRAKURGAIA

Karguen, bisitaren eta Erregla onen beraren gañean.

Ordenako eginkizunen karguak emateko autuera egingo da, senidelagunak batzarrera bildu ta. An izendaturik bakoitzari ematen zaion lan urá izango dute iru urtean. Eta utzitzeko arrazoi bidezkorik ez badaukate, gogoz artu ta al de-

zateken ondoena egiten saiatu bear dute beti.

Bisitatzalleak ardura aundiarekiñ idu-
kiko du kontua, gordetzen ote dan Erre-
glak agintzen duena. Au jakiteko, bere
egitekoari dagokion bezala joango da
urtean beiñ, eta premia bada maizago,
Ordenaren kargua duen leku denetara:
eta bakoitzean, Buruzai eta beste seni-
delagun denaki biltzeko agindurik egin-
go du batzarrea. Eta Bisitatzalleak nor-
baiti, artutako karguari arreta geago
emanerazotzeko konbeni zaion zerbait
konseju edo penitenzi ematen badio,
umiltasunarekiñ ontzat artu ta egin beza
birtutean aurreratu dediñ.

Bisitatzalleak izan bear dira San Fran-
ziskoren Lenbiziko Ordenako Erlijiosoak
edo Irugarren Orden erregularrekoak;
Guardianoak autuak: eta auek, eskatzen
zaiotenean bialdu bear dute Aita bat.

Orden onetakoak; artutako bizimodua-
ri dagokion eran obeditu bearrean, era-
kasde charra eman edo kalte egiten ba-

dute; bigarren eta irugarren aldian ere, ala bear bada, esango zaiote beren obligazioa betetzeko; eta ez badute egiten, kanpora atera ta utziak izango dira.

Jakiñaren gañean beude; Erregla onek agintzen dituen eginkizunetan utsegitea-rekiñ ez dala pekaturik, Jaungoikoaren legeko edo Ama Eliza Santaren mandamentuen kontra ez bada.

Erreglak agintzen dituen egitekoren batzuek betetzeko ezinkizun aundi eta bidezkoa norbaitek badu; erraztu dizaioke are ordez konbeni dan beste zerbait agintzearekiñ. Onetarako eskubidea len aipatutako San Franziskoren Lenbiziko eta Irugarren Ordenako Buruzaiak eta Bisitatzalleak dute.

INDULJENZI ETA PRIBILEJIOAK

LENENGO IRAKURGAIA

Induljenzi plenari edo barkazio osoen
gañean.

Irugarren Orden onetako denak ongi konfesatu eta komulgaturik irabazi dezateke induljenzi plenari edo pekatu denen barkazio osoa, aurrera emen señalatuak dauden egunetan; bakoitzean esaten dana egiñaz:

Ordenan sartzen diran egunean, onegatik beragatik.

Profesatzen diran egunean, igoal.

Illeroko batzarre edo Elizfunzioko egunean, denentzat irekitzen dan Eliza edo Kapilla bat bisitatu ta, an, oitura dan bezala Ama Eliza Santaren premiakgatik zerbait orazio egitearekiñ.

Urriaren lauean, Aita San Franzisko Patriarkaren egunean; Abuztuaren ama-

bian, Ama Santa Klararen egunean; Abuztuaren bian, Aingeruen Erregiñ María guziz Santaren egunean, beraren onrarako Porziunkula deritzan Eliza kon-sagratu zitzaioneko oroitzan; eta gañera, Irugarren Ordena jarria dagon Elizako Patroi edo Goardatari Santuaren egu-nean, Eliz urá bisitatuaz an Ama Eliza Santaren premiakgatik erregutzen badu.

Illean beñ, bakoitzak nai duen egu-nean, denentzat irekitzen dan Eliza edo Kapilla batera joan ta, an, Aita Santuak nai duenerako zerbait denboran erre-zatuaz.

Bizitza ontzeko asmoarekiñ animari dagozkion egitekoetara zortzi eguneko erretiratzen diran aldi bakoitzean.

Erietzako orduan; itzez, edo onela ezin badezateke, biotzez Jesús esaten dutela Izen Santu onekiñ bakarrarekiñ Berari deituaz. Eta onela; naiz konfesatu ta ko-mulgatu eziñ, irichi dezateke beren pe-katuen barkazio osoa, Jaungoikoa ofen-ditu duten guziaz egiazko damua badute.

Urtean bi bider, Aita Santuaren bendizioa artu ta Aren beraren asmorako zerbait denboran orazioa egiten dutenak. Eta gañera, absoluzio jenerala artu ta esan dedan bazala orazioa egitearekiñ, emen aurrera seinalatuak dauden egun auetan ere bai; zeñak diran: Jesukristo gure Jaunaren jaiotzako eguna. Pazko biztuerakoa. Pazko Maiatzekoa. Jesusen Biotz guziz Sagraduarena. Ama Birjiña doatsuaren Sortze guziz garbikoa. San Josérena. Aita San Franziskori bost Zauri Sagraduak ezarri zitzaiozkanekoa. Iru-garren Orden onetako Senide denen Goardatari gloriatsu San Luis Franziaiko Erregearena, Abuztuaren ogeita bostean. Eta Santa Isabel Ungriako Erregiñarena, Azaroaren emeretzian.

Illean beñ; bost Aita gure, Agur Mari eta Gloria Patri Eliza Santaren ónerako, eta beste bat Aita Santuaren asmorako errezatzearekiñ irabazi ditzateke; Erromako Estazioak bisitatuaz, edo Porziunkulako Elizara, Jerusalengo Leku San-

tuetara eta Galiziako Santiagogana peregrinazioan joaten diranak irabazten dituzten barkazio eta grazi berak.

Orain aipatutako Estazio edo Leku Santu oek denak bisitatzearekin boste-unda ogeita amairu barkazio oso irabazten dira; eta gañera denbora seinalatutako barkazioak ezinkontala.

Erromako Mezliburuan seinalatuak dauden Estazioetako egunetan, Irugarren Ordena jarria dagon Eliza edo Kapilla bisitatuaz an Ama Eliza Santaren premiagatik orazioa egiten dutenak irabaziko dituzte, Erroman irabazten diran barkazio berak.

ERROMAKO MEZLIBURUAK SEÑALATZEN
DITUEN ESTAZIOETACO EGUNAK ETA
AETAKO BAKOITZEAN IRABAZI
DITEZKEN BARKAZIOAK,
SEGITUAN DAUDEN
AUEK DIRA.

Urteberri eta Iru-Erregeen egunean,
eta Zalduniote eta lenagoko bi Igandee-
tan, ogeita amar urteko eta beste ain-
beste berrogeiko barkazioa.

Austerre egunean eta Garizumako
laugarren Igandean, amabost urteko eta
beste ainbeste berrogeikoa.

Erramu egunean, ogeita bost urteko
eta beste ainbeste berrogeikoa.

Ostegun Santu egunean, barkazio osoa.

Ostiral Santu egunean, ogeita amar
urteko eta beste ainbeste berrogeikoa.

Larunbat Santu egunean, igoal.

Garizumako beste egun denetan, amar
urteko eta beste ainbeste berrogeikoa.

Pazko egunean, barkazio osoa.

Ondorengo zazpi egunetan, ogeitamar urteko eta beste ainbeste berrogeikoa: eta gañera; San Markos Ebanjelariaren eta Errogatibatako iru egunetan, igoal.

Azensio edo Jesusen zeruratze egunean, barkazio osoa.

Pazko Maiatzeko besperan, amar urteko eta beste ainbeste berrogeikoa.

Pazko eta ondorengo sei egunetan, ogeita amar urteko eta beste ainbeste berrogeikoa.

Agorreko denboretako iru barau egunetan, amar urteko eta beste ainbeste berrogeikoa: eta gañera, Abenduaren lenbiziko, bigarren eta laugarren Igandean, eta denboretako iru barau egunetan, igoal.

Abenduaren irugarren Igandean, amabost urteko eta beste ainbeste berrogeikoa: eta gañera, ogeita laugarren egunean, urrengo gauean eta goizeko Mezan, igoal. Eguberri egunean gañera barkazio osoa.

San Esteban, San Juan Ebanjelari eta

Santu Inozenteen egunean, ogeita amar urteko eta beste ainbeste berrogeikoa.

PORZIUNKULAKO INDULJENZI PLENARI
EDO PEKATU DENEN BARKAZIO OSOA.

Barkazio au irichi edo irabazitzeko bear da, konfesatu eta komulgatu erozeñ lekutan, eta gañera pribilejiatua dagon Elizan orazioa egiñ denbora piska batean.

Uztaren ogeitamarrean egiten dan konfesioak ere balio dio bakoitzari, gerozko pekatu mortalik ez badu: komulgatu bear da Abuztuaren bian, edo nai duena lenbizian: eta egun onetan arratzaldeko lauak baño lenseagotik aurrera noiz nai irabazi diteke biaramunean eguzkia sartu arte. Denbora onetan, Elizan sartu ta orazioa egite bakoitzarekiñ irabazten da barkazio osoa.

Orazioa egin bear da Aita Santuaren

asmorako: askok sartu aldian errezatzen dituzte bost Aita gure eta Agur Mari.

Errezatzen asitzerako seinalatu bear da norentzat irabazi nai duen. Konbeni dan bezala askok lenbizikoa artzen dute berentzat eta azkenekoa ere bai; eta bitarteko denak eskeintzen dituzte purgatorioko animentzat.

Egia da, onetarako guziz garbi eta ondo prestatuko bagiña irabazi dezakegula agindua dagon bezala pekatu denen barkazio osoa; baña izanik gu hit argalak, erraz gerta diteke esaten zaizkigun egitekoak ez bear bezala beteaz bukatzea: eta onegatik berriz ere bizi geran arte al degunean saiatu bear degu guretzat eta besteentzat barkazioak irabazten.

Aita San Franziskoren Ordenako Erlijiosoaren abituari muñegitearekiñ irabazten da, bost urteko eta beste ainbeste berrogeiko barkazioa.

Aita Santu Leon amargarrenak eman zuen pekatu denen barkazio osoa, erioztzako orduan San Franziskoren abitua eskatu eta oiaren gañean idukirik, arekiñ obiatzen diranenzat.

BIGARREN IRAKURGAIA

**Denbora señalatuetako barkazioen
gañean.**

Irugarren Ordenako Senideak Orden
au jarria dagon Eliza edo Kapilla bisita-
tu ta, an, len esan dedan bezala Ama
Eliza Santaren premiakgatik Jaungoiko-
ari erregutzearekiñ irabazi dezateke zaz-
pi urteko eta beste ainbeste berrogeiko
barkazioa, Aita San Franziskori ezarri-
tako Zauri Sagraduen festegunean; San
Luis Franziaiko Erregearenean; Santa
Isabel Portugalgo Erregiñarenean; Santa
Isabel Ungriako Erregiñarenean eta San-
ta Margarita Kortonakoarenean: eta ga-
ñera urtean amabi egun bakoitzak autu
eta Ordenako Buruzaiak ontzat ematen
dionkatenetan ere bai.

Eta irabazi dezateke irueun eguneko
barkazioa, Meza entzutearekiñ; Elizofi-
zio Jaungoikozkoetan debozioz egonaz;

Senidelagunen arteko batzarrera joatean; pobreaki ostatua ematen badiote; aserre daudenak adiskidetzera saiatzen badira; prozesioan ibiltzearekiñ; Sakramentu Santua eramateko ezkillak jotzean Ari lagunduaz, edo au eziñ badezateke Aita gurea eta agur Maria erreztatuaz; Eliza Santaren premiakgatik bost Aita gure eta Agur Mari esaten badituzte, edo onela ildako Senidelagunenzat Jaungoikoari erregrutzeagatik, eta iltzen dana obiratzeko Elizfunziora joatean; gaizki dabillena berari dagozkion egitekoetara biurtzen saiatzeagatik; Jaungoikoaren legeko aginde santuak eta gañera salbatzeko jakitñ bear diranak norbaiti erakastean; eta gis onetako beste zernai obra karidadezko egitearekiñ ere bai.

Eta esan diran barkazio auetatik naitutuzten denak purgatorioko animen sufrajiorako eskeñi ditzateke.



IRUGARREN IRAKURGAIA

Pribilejioen gañean.

Irugarren Ordenako Apaizentzat erozeñ aldare pribilejiatua da purgatorioko animen sufragiorako astero iru egunetan, beste egunerako onelako pribilejiorik ez badu.

Gañera konbeni da jakitea au ere.

Aita Santu Pio bederatzigarrenak Apaiz sekularrentzat emandako, San Franzisko-ren Ordenako Errezoliburutik errezatzeko baimena, aurrerako ere bere indarrean gelditzen da; oraingo Aita Santu Leon amairugarrenak, esan dedan Ordenako Buruzai Jeneralakiñ 1883garren urteko Uztaren zazpian egin zuen itzaldian aitortu zuenez.

BIGARREN PARTEA

**Abitua ematerako, profesatzeko eta
profesatu ondoan Apaizak egiteko
itzaldiak.**

*Bat baño geiago diranean, era arfan
mintzatu bear zaiote.*

Zuk, *izena*; zer deseatu eta eskatzen dezu, umiltasunarekiñ penitenziako Iru-garren Ordenako abitu santua, betiko salbazioa aisago seguratu dezazun? *Eranzun beza*: Bai Jauna.

Eskerrak Jaungoikoari. Bai kristaua, eskerrak eman bear diozkagu Jaungoikoari, lengoen gañera egin dizun mesede aundi orregatik; zeren Ark eman dizu gogo on ori, betiko zorionean gozatzera aisago eta seguruago allegatu zaitzen. Agitz aundia da, gaur zuk aditzer a eman diguzun asmoa; eta konsolakeria Orden onetako Senide penitente de-

nentzat: baña salbazioko egitekoan, asitza bakarra ez da azki; baizik, aurrera ere ondo segituaz iraun egin bear da beti. Saia zaite bada egunero Aita San Franziskori erregutu eta Jaungoikoari graziak eskatuaz deseo on ori sendotu ta indartzen, oraiñ obra onakiñ Aek onratuaz zerori santuturik, gero saritzat beurekin batean gozatu zaitezen betikotasun guzian zeruko glorian. Amen.

Profesatzeko.

Zuk, *izena*; zer nai dezu, Aita San Franziskoren Irugarren Ordenako profesioan ontzat artzea, ill arte guzian emen penitenzia egiñaz Jaungoikoa geiago maitatu eta obeto serbitu dezazun? *Eran-sun beza*: Bai Jauna.

Bada ni prest nago; besteak entzuten dutela zuk, bizi guzian maitatu eta serbitu nai dezula aitortu dezun Jaungoikoaren izenean zure deseo ori betetzeko. Pensa zazu bada, Jabe on ark oraiindaño

egin dizkizun mesede ugariaz gañera egun onetan paratzen zaituela munduan arkitzen diran zerurako biderik zuzenena netako batean; onegatik, gaur zer agintzen dezun maiz oroitu ta emendik aurrera bizi zaite egiten dizkizun mesede denakgatik Jaungoiko ari eskerrak emanaz bera onratzen, biziera berri oni dagokion bezala.

Emen aditu zadazu ongi zer esaten dedan. Oraiñ, profesatzeko galdetzen dizudan dena baietz eranzunagatik, naiz gero, agintzen dezun auetakorik iñoiz deus ez egiñ, orregatik ez dezu pekatu-rik izango. Esan nai det; Orden onetan ez dala iñor pekatuaren azpian obligatzen deustara, beste erozeiñ kristau Jaungoikoaren legeko eta Ama Eliza Santaren mandamentu edo agindeak goardatzera obligatua dagon baño geiago: baik, emen egingo da, nagusi eta morroia-rekiñ gertatu ditekena. Nagusi batek esaten dio mutil bati, ¿nai dezu nigana morroi etorri? *onelako* eta *alako* lan izan-

go dituzu; eta illabeteko *onenbeste* izango dezu soldata. Baña, esan dizkizudan lan auek zuk egiten ez badituzu; nik ere ez dizut emango agindutako soldata dena, baizik lana egiten dezun arabera: eta, ikusten badet aurrera ere, orain aipatu dizkizudan auek nai izan eskero egin ditzakezularik lazaikeriz lajatzan dituzula; bi edo iru aldiz esango zaizu emandako itza egiztatzeko, eta alarik ere ez bazera geiago saiatzan, echetik kanpora bialduko zaitut; zeren ez det iduki nai, dezakelarik lan erraz oek egiten ez dituen mirabe alferrik.

Bada, Erreglak agintzen duen bezalase, gisa berean egingo da Aita San Franziskoren Irugarren Orden Beneragarri onetako abitu santua artzen dutenakiñ eta profesatzen diranakiñ ere. Ikusten badegu, illeroko señalatzen dan egunean arrazoi bidezkorik gabe gelditzen dirala, goizean komulgatzera eta arratzaldean Elizfunziora etorri nai ezik; orrelakoak ez bakarrik egongo dira Jaungoikoak

onara zabaltzen dituen grazi ugari, Aita San Franziskoren bendizio santu eta Jesuskristoren Bikarioak aginduak dauzkan ainbeste barkazioetatik parterik gabe; baizik gertatuko ere zaiote, lengo morroi artaz esan dedana: au da; agindu dutena beren nagitasunez egin gabe lajatuaz dabilzanaki, bi edo iru aldiz aditzera emango zaiote beren utsegiña, eta ala guziz ere ez badira obeto saiatzen, onelakoen izenak borratuko ditugu liburuan, eta Ordena santa onetatik kanpora atereak geldituko dira: zeren emen, Ama maitagarri au eta bere ume fielak desonratzen dituenaren bearrik ez da.

Eta esan dedan dena aditurik; oraiñ zuk, Jaungoiko guzieldunaren aurrean, eta manchik gabe sortutako Maria beti Birjiñaren, San Franziskoren eta beste Santu denen onran, gitzematen dezu zure bizi guzian goardatuko dituzula Jaungoikoaren agindeak eta Irugarren Orden onetako Erregla, zeña dan, Aita San Franziskok berak jarria eta Aita Santu

Nikolas laugarrenak eta Leon amairugarrenak ontzat emana? *E. b.* Bai Jauna.

Eta gañera, zuek Ordena santa onetan gobernatzen zaituzten Buruzaiak jakiten badu oraiñ agindua ez deztela egiztazten; prest zaude, ark zure onerako ematen dizkizun konseju eta penitenziak umilkiro entzun eta egiteko? *E. b.* Bai Jauna.

Bada, emen agindu dituzunak egiten badituzu, nik Jaungoikoaren partetik agintzen dizut betiko bizia eta gloria zerruan. Et ego ex parte Dei, si hæc observaveris, promitto tibi vitam æternam. In nomine Patris, et Filii † et Spíritus Sancti. *ñ.* Amen.

Profesatu ondoan.

Oraiñ, aditzera emanaz, ezagutu eta aitortzen dezula berriro, Jesukristo, gure Jauna dala zure Salbatzallea; Santa María Magdalenak pekatua gorrotatu ta Jaungoikoagana biurtu zanean bezala;

aurrera ziñez maitatu eta serbitu nai de-
zulako señaletzat muñegiozu Jesusi oñe-
tan. *Onetarako eman bizaio gurutz-
itzatua.*



DANTZA, TEATRO ETA ERRETIROAZ

KONBENI DIRAN KONSIDERAZIOAK.

Dantzaren gañean.

Persona asko dira esaten dutenak dantzatzea berez ez dala pekatu, eta jendeari nolauai laja bear zaiola libertitzen. Egia da dantzatu ditekela pekatuan erori gabe, David Erregea Jaungoikoaren kucha santaren aurrean bezala, eta Israelgo Birjiñen gisara; zeñak beren modestiazko ibillerakiñ birtutezko ejemplo edo erakasdea ematen zien begiratzen zioten denaki. ¿Baña non ikusten da oraiñ modu artan dantzatzen? Aita Santu Benedikto amalaugarrenak jakiñik jendearen dantzatzeko modua, eta au ontzat idukitzeagatik nola itz egiten zuten; ase-

rreturik bezala, esaten zuen; dantzak pekatuaren kutsua berekiñ duela. San Zipriano gisa berean mintzatzen da, esanaz; lotsatzen naiz, dantzatzea ontzat eman naiean atetzen dituzten itzak aipatzea ere. San Krisostomok, griña gaiztoak sortu eta pekatua ikasten dan eskola deitzen dio dantzari. San Ambrosiok esaten du; dantza, inozenziaren galera, eta garbitasunaren errespetoa eta onra oinpetzen dituen dala. San Karlos Borromeok aditzera ematen digu; emakume eta gizasemeak elkarrekiñ dantzatzen diran lekua, dala, infernuko deabrua deitu ta bezala erdian jarririk bere mendeko serbitzariak ingurutik dituela ibiltzen diran plaza kondenakaria. Bada Elizako Aita jakintsu ta Santu aukeratu modu onetan errenkuratu eta mintzatzen badira denbora aetako dantzaz; ¿zer esango det nik oraingo dantzatzeko moduz?

Esan eta ematen dizkizut; konseju eta enkargu aukeratuak bakarrik: Jaungoikoaren grazi eta adiskidetasunean iraunaz zure

Senide penitenteak estimatzea nai badezu; dantzara gabe, artu dezun izen berri eta abitu santuari dagokien eran bizi zaitezela.

Teatro edo biltokien gañean

Teatroan nitzan: teatrorra joan bear degu. Itz auek entzuten dira oraingo denboretan zenbait personen abotik, teatroa toki onratsu bat bailitz bezala. Gañera, kristau ontzat idukitzea nai duten asko joaten dira ara. Eta galdetzen bazaiote, ¿ea zer gauz ou arkitzen duten an, edo zenbat provechu atetzen duten audik? eranzuten dute; denbora gustora irago. ¡¡Ay!! beste persona batzuek, zerbait motibok obligaturik bezala noizbait allegatzen badira orrelako lekura, kezka eta naigabeakiñ tristetuak betiko urrikitu ta atetzen dira; eta zuek, ¿denbora gustora iragotzen dezutela diozute? ¿Nola aditzen da esanza ori? ¡¡A doakabeak!! aditu eta ezagutzen da bai ongi: aek dira, garbita-

suna estimaturik oni kontu aundia egiñaz Jaungoikoaren beldur santuan bizi diranak; eta onegatik izutu eta ikaratzen dira an: zeren oartzen dute, alde denetarik, beren garbitasun estimagarria itsustuz Jaungoikoa ofenditzeko irriskuak aurkezten zaiozkatela: eta onetara tiratzen dituela, arkitzen diran tokiak, dau den garaiak, ikusten duten jendeak, entzuten dituzten itzak, igerritzen dioten moduak, eta gañerako denak ere. ¿Eta zuek, ala denbora gustora iragotzen dezutela diozute? bada, bizitza lazaiera utzi ta pekatuari lekua aisa ematen diozute-lako señaile negargarria da ori. Bai. Eta au bera diote, edo gis onetan bakoitzak bere iritzia emanaz mintzatzen dira; San Zipriano eta beste lengo orrian aipatu ditudan Elizako Aita jakintsu ta Santuak ere.

¡¡Ay!! ¡Zenbat joan ote dira urte aue-tan, pekatuko leku oetan desgraziz ill ta kondenaziorako kulparekiñ Jaungoikoaren aurrera betiko sententzia artzera! ¡¡A!!

¡¡¡Zorigaiztokoak izango dira bada aek betikotasun guzian!!!

Eta au dena jakiñik, ¿izango ote da iñor; teatro edo biltoki oetara gabe gelditzeko sakrifizio chiki ori egiteko asmorik ez duelarik, penitenziako Orden onetan sartu nai lukela esatera atrebituko danik?

¡Ez baldinbere!

Erretiroaren gañean.

Erretiro ona aiñ da bearra personarentzat, Jaungoikoaren grazian eta gañera munduko ezagunakiñ onratsu bizi-tzeko ere; non, onetan utsegitea bakarra aski duen erozeiñek, jendearen artean estimaziorik gabe eta iñork echera artu nai ezik despreziatua izateko. Bai; zeren oartu eta ikusten danagatik desgustoz, kristau onen gogotik ainbesterañ aterea edo utzia dago erretiro charraren izen itsusia, eta aiñ galdu edo ondatutzat daukate oitura au duena; zeññataz, beste

erozer bizio baduela entzunagatik batere miresten ez diran. Zeren egiteko bidezkorik ez duenaren gauberanduko ibillera; gaiztokerirako asmo charraren señaletzat, edo pekatuan erortzeko irriskutzat daukate denak. Eta onelase aditzera ematen digu orrelakoaz Jesukristo gure Jaunak ere bere Ebanjelio Santuan, esanaz; gaizki egiteko asmoa daukanak argiari ez diola gogoz begiratzen, illumbea nai duela iñork ikusi ez dezan. Egi aundia da au: obrak agertzen dira testigotzat, adierazteko, munduko gaiztokeri eta pekaturik geienak gauez egiten dirala. Bai; egunaren argiak lotsa eta beldurra sortzen diozkatelako arratzean artzen dute libertaderik geiena egaztirik itsusi-enak, alimalirik izukari-enak, gizonik gaizto-enak, eta emakumerik charrenak ere. ¿Eta zuk, irakurlea, edo entzuten zaudena; naiko dezu aurrera, egiazko premirik gabe garai peligrotsu oetan kanpoan, jende ondatu orren lagunetakoa baiziña bezala zure onra galtzera jarri?

Ez det uste: zeren pensatzen det, dauka-
zun fama eta kristauaren izena estima-
tzen dituzuna zerala. Bada, kristau denak
onetan beldur santu eta kontu aundiare-
kiñ bizi bear badute; konsidera zazu,
auen artean ónenak izan nai dutela adi-
tzera emanaz penitenziako Orden onetan
sartzen diranak zenbateko ardura iduki
bear duten: eta ikusiko dezu, Jaungoi-
koak egin dizkizun mesede ugariakgatik
berari bear bezala eranzun nai badiozu,
obligatua zaudela muga onean erretira-
tuaz beste denaki erakasde ona ematera.

EROEIÑ APAIZEK
IRUGARREN ORDENAKOAKI CONFESIOKO
SAKRAMENTUAREN ONDOREN BEREALA
PEKATU DENAK OSORO BARKATZEKO,
ABSOLUZIO JENERALA.

Dominus noster Jesus Christus, qui beato Petro Apostolo dedit potestatem ligandi atque solvendi, Ille te absolvat ab omni vinculo delictorum, ut habeas vitam æternam, et vivas in sæcula sæculorum. Amen.

Per sacratissimam Passionem et mortem Domini nostri Jesu Christi; precibus et meritis beatissimæ semper Virginis Mariæ, beatorum Apostolorum Petri et Pauli, beati Patris nostri Francisci, et omnium Sanctorum, auctoritate a Summis Pontificibus mihi concessa, plenariam indulgentiam omnium peccatorum tuorum tibi impertior. In nomine Patris, et Filii † et Spiritus Sancti. Amen.

*Lengo ori dena esateko bear dan den-
bora orretan eziñ irago ditekenean,
emendik aurrera dagon au bakarra as-
ki da.*

Auctoritate a Summis Pontificibus mi-
hi concessa, plenariam omnium peccato-
rum tuorum indulgentiam tibi impertior.
In nomine Patris, et Filii † et Spiritus
Sancti. Amen.

**Irugarren Ordenakoaki eriotzako denboran
pekatu denak barkatzeko absoluzioa.**

*Ordenako Zuzendariak, edo gaisoagana dei-
tutako beste erozeiñ konfesorek, allegatzen
danean esango du:*

ÿ. Pax huic domui.

R̃. Et omnibus habitantibus in ea.

*Bereala ur bedeikatuarekiñ intzatu bitza
gaisoa, inguruak eta bertako personak, esa-
naz antífona:*

Asperges me, Domine, hyssopo, et munda-
bor; lavabis me, et super nivem dealbabor.

Miserere mei, Deus, secundum magnam
misericordiam tuam.

Gloria Patri, etc. Sicut erat, etc.

Berriz antifona: Asperges me, etc.

Eta aurrera bereala:

Ÿ. Adjutorium nostrum in nomine Domini.

ñ. Qui fecit cœlum et terram.

Ant. Ne reminiscaris, Domine, delicta famuli tui (*vel ancillæ tuæ*), neque vindictam sumas de peccatis ejus.

Kyrie eleison.

Christe eleison. Kyrie eleison.

Pater noster, *gañerakoa isillik.*

Et ne nos inducas in tentationem.

Sed libera nos a malo.

Ÿ. Salvum fac servum tuum (*vel salvam fac ancillam tuam*).

ñ. Deus meus sperantem in te.

Ÿ. Domine exaudi orationem meam.

ñ. Et clamor meus ad te veniat.

Ÿ. Dominus vobiscum.

ñ. Et cum spiritu tuo.

Oremus

Clementissime Deus, Pater misericordiarum, et Deus totius consolationis, qui neminem vis perire in te credentem atque speran-

tem, secundum multitudinem miserationum
tuarum respice propitius famulum tuum (*vel*
famulam tuam) N., quem (*vel* quam), tibi vera
fides et spes christiana commendant. Visita
eum (*vel* eam) in salutari tuo, et per Unigeni-
tū tui passionem et mortem omnium ei
delictorum suorum remissionem et veniam
clementer indulge: ut ejus anima, in hora
exitus sui, te judicem propiciatum inveniat,
et in Sanguine ejusdem Filii tui ab omni ma-
cula abluta, transire ad vitam mereatur per-
petuam. Per eundem Christum Dominum
nostrum. Amen.

*Emen laguntzalleak esanbeardu, Confiteor:
Apaizak, Misereatur; eta aurrera bereala:*

Dominus noster Jesus Christus, Filius Dei
vivi, qui beato Petro Apostolo suo dedit potes-
tatem ligandi atque solvendi: per suam piissi-
mam misericordiam recipiat confessionem
tuam, et restituat tibi stolam primam, quam
in baptismo recepisti; et ego facultate mihi
ab Apostolica Sede tributa, indulgentiam ple-
nariam, et remissionem omnium peccatorum
tibi concedo. In nomine Patris, et Filii † et
Spiritus Sancti.

Per sacrosancta humanæ reparationis My-
teria, remittat tibi omnipotens Deus omnes
præsentis et futuræ vitæ pœnas, Paradisi
portas aperiatur, et ad gaudia sempiterna per-
ducat. Amen.

Benedicat te omnipotens Deus, Pater, et
Filius † et Spiritus Sanctus. Amen.

*Goiko ori dena bukatu baño len gaisoa iltze-
ko beldurra duenean asi bedi Apaiza esana,
Dominus noster. Azkeneko asnaseetan bada-
go, aski da aurrera dagon au bakarra.*

Indulgentiam plenariam et remissionem
omnium peccatorum tibi concedo, in nomine
Patris, et Filii † et Spiritus Sancti. Amen.

*Iltzen danean gomendatu zaiezu Jaungoi-
koari eta Ama Birjiñari aren anima, purga-
torioan badago lenbailen zeruko gloriara era-
man dezaten.*

ILDAKO SENIDEEN, ONGILLEEN ETA BESTE
LAGUNURKOEN ANIMAK PURGATORIOTIK
ATETZEKO ERRESPONSOA.

R̃. Libera me, Dómine, de morte ætérna,
in die illa treménda: * Quándo cœli movéndi
sunt, et terra: * Dum véneris judicáre sæcu-
lum per ignem.

Ÿ. Tremens factus sum ego, et timeo, dum
discússio vénerit, atque ventura ira.

R̃. Quándo cœli movéndi sunt et terra.

Ÿ. Dies illa, dies iræ, calamitátis et misé-
riæ, dies magna et amára valde.

R̃. Dum véneris judicáre sæculum per
ignem.

Ÿ. Réquiem ætérnam dona eis, Dómine, et
lux perpétua lúceat eis.

R̃. Libera me, Dómine, de morte ætérna,
in die illa treménda; * Quándo cœli movéndi
sunt, et terra: * Dum véneris judicáre sæcu-
lum per ignem.

Pater noster, qui es in cœlis: sanctificétur
nomen tuum: advéniat regnum tuum: fiat
volúntas tua, sicut in cœlo et in terra. Pa-
nem nostrum quotidiánum da nobis hódie: et
dimítte nobis débíta nostra, sicut et nos di-
mittimus debitóribus nostris.

ŷ. Et ne nos indúcas in tentatióem.

Ŕ. Sed libera nos a malo.

ŷ. A porta inferi.

Ŕ. Erue, Dómine, ánimas eórum.

ŷ. Requiéscant in pace. Ŕ. Amen.

ŷ. Dómine, exáudi oratióem meam.

Ŕ. Et clamor meus ad te véniat.

ŷ. Dóminus vobiscum.

Ŕ. Et cum spiritu tuo.

Orémus

Deus, vénice largitor et humánæ salútis amátor: quæsumus cleméntiam tuam; ut nostræ Congregatiónis fratres, soróres, propínquos, et benefactóres, qui ex hoc sæculo transiérunt beáta María semper Virgine intercedente cum ómnibus Sanctis tuis, ad perpétuæ beatitúdinis consórtium pervenire concédas. Per Christum Dóminum nostrum. Ŕ. Amen.

ŷ. Réquiem ætérnam dona eis Dómine.

Ŕ. Et lux perpétua lúceat eis.

ŷ. Requiéscant in pace. Ŕ. Amen.

ŷ. Animæ eórum, et omnium fidélium defunctorum per misericórdiam Dei requiécant in pace. Ŕ. Amen.

SAKRAMENTU SANTUARI KANTATZEKO

O salutáris Hóstia,
Quæ coeli pandis óstium,
Bella premunt hostilia,
Da robur, fer auxílium.

Uni trinóque Dómino
Sit sempitérna glória,
Qui vitam sine término
Nobis donet in patria. Amen.

Tantum ergo Sacraméntum
Venerémur cernui,
Et antiquum documentum
Novo cedat ritui:
Præstet fides suppléméntum
Sensuúm deféctui.

Genitóri genitóque
Laus et jubilátio:
Salus, honor, virtus quóque
Sit et benedictio:
Procedénti ab utróque
Compar sit laudátio. Amen.

Ÿ. Panem de cœlo præstitisti eis.

Pazko denboran geitu bear da: alleluja.

Ŕ. Orane delectaméntum in se habéntem.

Orémus

Deus, qui nobis sub Sacraménto mirábili
passiónis tuæ memóriam reliquisti: tribue,
quæsumus: ita nos Córporis et Sanguinis tui
sacra mystéria venerari ut redemptionis tuæ
fructum in nobis júgiter sentiámus: Qui vívis
et regnas in sæcula sæculórum. Ŕ. Amen.

AMA BIRJIÑARI ERREZATZEKO

Salve, Regina, mater misericórdiæ, vita,
dulcédo et spes nostra, salve. Ad te clamá-
mus, éxules filii Hevæ. Ad te suspirámus
geméntes et flentes in hac lacrymárum valle.
Eja ergo, Advocáta nostra, illos tuós miseri-
córdes óculos ad nos convérte. Et Jesum
benedictum fructum ventris tui nobis post
hoc exílium osténde. O clemens, o pia, o dul-
cis Virgo María.

Ÿ. Ora pro nobis, Sancta Dei Génitrix.

Ŕ. Ut digni efficiámur promissionibus
Christi.

AMA BIRJIÑAREN LETANIAK

Kyrie eléison.

Christe eléison.

Kyrie eléison.

Christe, áudi nos.

Christe exáudi nos.

Pater de cœlis Deus, miserére nobis.

Fili Redemptor mundi Deus, miserére.

Spíritus Sancte Deus, miserére.

Sancta Trinitas unus Deus, miserére.

Sancia María, ora pro nobis.

Sancta Dei Génitrix, ora.

Sancta Virgo Virginum, ora.

Mater Christi, ora.

Mater divinæ graciæ, ora.

Mater purissima, ora.

Mater castissima, ora.

Mater invioláta, ora.

Mater intemeráta, ora.

Mater immaculata, ora.

Mater amábilis, ora.

Mater admirábilis, ora.

Mater Creatóris, ora.

Mater Salvatóris, ora.

Virgo prudentissima,	ora.
Virgo veneranda,	ora.
Virgo prædicanda,	ora.
Virgo potens,	ora.
Virgo clemens,	ora.
Virgo fidélis,	ora.
Spéculum justitiæ,	ora.
Sedes sapiéntiæ,	ora.
Cáusa nostræ letitiæ,	ora.
Vas spirituále,	ora.
Vas honorábile,	ora.
Vas insigne devotiõnis,	ora.
Rosa Mystica,	ora.
Turris Davidica,	ora.
Turris ebúrnea,	ora.
Domus áurea,	ora.
Fœderis arca,	ora.
Janua coeli,	ora.
Stella matutína,	ora.
Salus infirmorum,	ora.
Refúgium peccatorum,	ora.
Consolátrix afflictórum,	ora.
Auxílium Christianórum,	ora.
Regina Angelórum,	ora.
Regina Patriarchárum,	ora.
Regina Prophetárum,	ora.

Regina Apostolorum, ora.

Regina Martyrum, ora.

Regina Confessorum ora.

Regina Virginum, ora.

Regina Sanctorum omnium, ora.

Regina sine labe originali concepta, ora.

Regina Sacratissimi Rosarii, ora.

Agnus Dei, qui tollis peccata mundi; parce nobis, Domine.

Agnus Dei, qui tollis peccata mundi; exaudi nos, Domine.

Agnus Dei, qui tollis peccata mundi; miserere nobis.

ŷ. Ora pro nobis Sancta Dei Genitrix.

ŕ. Ut digni efficiamur promissionibus Christi.

Oremus

Gratiam tuam, quæsumus, Domine, mentibus nostris infunde: ut qui, Angelo nuntiante, Christi Filii tui Incarnationem cognovimus; per passionem ejus, et crucem, ad resurrectionis gloriam perducamur. Per eundem Christum Dominum nostrum. ŕ. Amen.

JESUKRISTOK ASKO MAITE ZUEN
GURE AITA SAN FRANZISKORI
EGINDAKO AGINTZAK.

Aita Santu Gregorio bederatzigarrenak esaten zuen, entzun izandu ziola gurre Aita San Franziskori; Jesukristok agindu ziozkala aurrerako laguntza eta grazi auk:

Beraren Ordenak *Iruak* iraungo dutela mundua aitu arte.

Zenbat Erlijioso geiago izan, anbat gauza ugariagokiñ eta obeto sokorrituko dituela beren premietan.

Patriarka onén Ordenako abitua artuta ari dagokion eran bizitzen dana, eriotz ona egiñaz ilko dala.

Onén Ordenan iltzen dana, purgatorioan ez dala urte batean egongo.

Pena eta tormentu ikarakariak sufritzen diran leku triste artara jachiko dala Aita San Franzisko urtero iru bider: bere egunean; Porziunkulako egunean; eta Jesukristok bereen gisako bost Zauriak ezarri ziozkaneko oroitzan, Agorraren amazazpian: eta aldi auetan denetan be-

re umeen animak presondegi izukari su eta garrezko artatik artu ta eramango dituela berekiñ batean betiko zorionera.

Santu onén Ordenaren persegitzalleak gogorkiro kastigatuak izango dirala; eta alakoak munduan bizitza laburra eta eriotz charra egingo dituztela.

Beraren Ordenak egiaz biotzetik maitatzen dituenak, pekatari aundia izanagatik ere nai badu irichiko duela Jaungoikoagandik laguntza, egindako gaizkiaz damutu ta Aren grazian jartzeko.

Eta Aita onén Ordenaki bear bezalako naiera diotenak, naiz bizitzako denbora geiena pena eta atsekabe aundiak sufritzen irago, azkenean sokorritu ta lagunduak izango dirala zerura joan ditzeten betiko glorietan goatzera.

Jendearen ondamenaz urrikaldu ta errezatu ditzagun Aita gurea eta Agur Maria pekatarien konbersiorako.

AITA SAN FRANZISKOREN ONRARAKO
ITZNEURTUAK.

1

Aita betikoaren
Seme Jesukristo;
Gizon egin zan munduan,
Gu salbatutzeko:
Eta eman dizkigu,
Chit laguntza asko;
Ezin kontatuala,
Grazi ta ejenplo;
Aundienetako bat,
Asisko Franzisko.

2

Kontu miragarria,
Gertatu da onekiñ;
Jesusek bere antza,
Nai izandu du egiñ;
Jaiotzan ta bizitzan,
Beti ia berdiñ:
¿Gañera zer egin zion,
Nai dezute jakiñ?
Sellatu zuen bere
Zauri Sagraduakiñ.

¡O Patriarka Santu,
Gure Aita ona!
Au da zuk irugarren
Jarritako Ordena:
Gogoz gordeaz emen,
Agintzen zaiguna;
Denak nai degu egiñ,
Bizitza on bana;
Zurekiñ gozatzeko,
Zeruko zoriona.

**San Luis Goardatariaren onrarako
itzneurtuak.**

¡O zenbat indar duen,
Kristauen fedeak!
¡Begira beza ononz,
Munduko jendeak!
Utzirik pekatua,
Ta arako bideak;
Zer moduetan gorde,
Jaunaren legeak;
Erakutsiko digu,
Luis Erregeak.

2

Chit birtutetsua zan,
Gazte gaztetandik;
Penitenzi ta barauz,
Eziñ asperturik:
Franzisko Asiskoa,
Maite zuen gogotik;
Eta aren Ordenan,
Sartutzeagatik;
Géite guzia kendu
Zuen Jauregitik.

3

Luis gure Ordenan,
Egiña da Santu;
Guri ere artara,
Deitutzen digu:
Zerura zuzen zuzen,
Nai gaitu giatu;
Bada denak chit gogoz,
Bear diogu jarraitu;
Betiko glorieta,
Gaitezen gozatu.

**Santa Isabelen onrarako
itzneurtuak.**

1

Ea, nere Senideak,
Alaitu gaitezen;
Eta jardun dezagun,
Isabel onratzen:
Franziskoren baratzan,
Lore au azi zen;
Birtute guzietan,
Beti aurreratzen;
Santa egin zan arte,
Beñere aspertu etzen.

2

¡O izar argi eder,
Giatzalle fiña!
Len Ungrian bizitu,
Ziñan Erregiña;
Oraiñ Goardatari,
Zauzkagu egiña:
¡Ay, zure antzekoak
Izango bagiña!
¡Lagun zaguzu arren!
¡Egizu alegiña!

Gure deseo auek,
Betetzeko emen;
Bakoitza bere aldetik,
Saiatu gaitezen;
Irugarren Orden au,
Sendotu ta indartzen:
Onelase zerura,
Joango gera zuzen;
Beti bizitzeko an,
Glorian gozatzen.

ITZNEURTUAK

IRUGARREN ORDENAKO SENIDEEN DEBOZIORAKO.

**Lenbiziko parte au,
asieran eta gero denak batean
Kantatzeko.**

*San Franziskoren ume fielak,
Fedearen indarrarekiñ;
Jesusi jarraitu nai diogu,
Ta aren legea goardatuaz ill.*

1

Jesukristo da gure argia
Eta bidea zerurako;
Goázen giátzen gaituén bezála,
An doatsuak izateko:
San Franziskoren ume.....

2

Iru etsai ditu guré animak,
Mundu, demonio eta aragi;
Baña erráz garaituko ditugu,
Kontra egiñaz deabruari:
San Franziskoren ume.....

3

Irugarren Ordenakoak, guk,
Penitenzi zale geranak;
Kristok ematen digun gurutzea,
Eramango degu denak:
San Franziskoren ume.....

4

Jaungoikoaren Bikario Erroman,
Kristau denen buru dagona;
Estú ta triste daukate gajoa,
¡Libra dezagun Aita ona!
San Franziskoren ume.....

5

Ama Eliza Santa defenditzen,
Erlijio Sagraduaren alde;
Azkeneko odol tantoa isuri arte,
Peleatzeko prest gaude:
San Franziskoren ume-fielak,
Fedearen indarrarekiñ;
Jesusi jarraitu nai diogu,
Ta aren legea goardatuaz ill.

AITA SAN FRANZISKOREN BENDIZIOA

Fray León, egun batean Alberniako mendian zegola; tentatu zuen gogorkiro infernuko etsaiak: eta jakiñik Aita San Franziskok Jaungoikoagandik, nola arkitzen zan eta zer nai zuen; deseo urá betetzeko, esan zion; eraman zegiozkala tintontzia eta izkribalarrua. Aren alde batean izkribatu zituen Jaungoikoaren alabantza batzuek, eta bestean bendiziozko itz auek:

BENEDÍCAT TIBI DÓMINUS, ET CUSTÓDIAT TE; OSTÉNDAT FACIEM SUAM TIBI, ET MISEREÁTUR TUI. CONVÉRTAT VULTUM SUUM AD TE, ET DET TIBI PACEM. Eta bereala beraseago:

DÓMINUS BENEDÍCAT TE, FRATER LEO.

Eta eman zion, esanaz; artu eta iduki zazu au zure bizi guzian.

Aita San Franziskogandik artu zuen bada bendizio au Fray Leonek; eta bere-alasè oartu zuen, tentazioa bazijoakiola: eta ala, denbora guchiren barrenen osoro libre laja zuen.

Ordutik bendizio santu onek mirari aundiak eta asko egin ditu gizaldi dene-tan, konfianza osoarekiñ artu eta estima-turik debozioz iduki dutenen onerako.

Eta onegatik; beraganako naiera artu ta zu ere provechatu zaitezen, jarri det emen euskaraz. Izkriba zazu bada zure izena bendizio onen bukaeran puntoak dauden lekuan.

JAUNAK BEDEIKATU ETA GUARDA ZAI-TZALA: † ERAKUTSI DIZAIZULA BERE AR-PEGIA, ETA IZAN DEZALA ZUZAZ ERRU-KIMENTUA. † BIURTU DEZALA BERE AR-

PEGIA ZUGANA, ETA EMAN DIZAIZULA
PAKEA. †

JAUNGOIKOAK BEDE † IKA ZAITZALA

JESUS, MARIA, JOSE

eta

Aita San Franziskoren gloriarako izan
dedilla liburuko au.

Eta zuk erregutu zazu nigatik.





A
49